



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERAREN GAINEKOA, 2018/07/20KOA

Uztailaren bigarren eta hirugarren asteetan, ekaitzak garatzeko baldintzek luzaro iraun dute: haize bortitza ibili da, euria egin du eta kazkabar apur bat bota du Arabako Errioxa osoan, baina leku batzuetan beste batzuetan baino gehiago. Gune batzuetan ur asko bota du eta askotariko kalteak eragin ditu: luziak gertatu dira, mahatsondoen oinetatik lurra kendu da edo lurra eta lokatza metatu dira, arekak eta hustubideak buxatu dira, arrakalak agertu dira bideetan eta ezpondak suntsitu dira. Haizeak, bestalde, aihenak eta gidatze egiturak puskatu ditu.

Zorionez, oraingo honetan, kazkabarrak ia ez du ezer bota Arabako Errioxan. Harriak kalte txiki batzuk baino ez ditu eragin Oion, Iekora eta Moreda Arabako aurkintza batzuetan, baina ez du oso gogor bota.

Temperaturak epelak izan direla eta une honetan zein egoeratan gauden ikusita, mahastizainak tratamenduak egiten jarraitu dute, mahastia babestuta izateko. Hala ere, ikus daiteke gorrinak eta zurinak kalteak eragin dituztela mahasti isolatuen hosto eta mahats mordoetan, urte arrunt batean baino askoz gehiago.

Arabako Errioxan mahastien egoera begetatiboa mahats mordo itxia (L egoera) da une honetan, eta ez dakar ez aurrerapenik ez atzerapenik, ohikoa denaren aldean. Ezohikoa dena da mahatsondoen hosto kopuru handia eta landaretza arrotza. Mahastizaina, ahal duen neurrian, saiatzen da mahats mordoan inguruetatik hostoak kentzen, produktuak errazago sar daitezen eta aireztapen hobea izan dadin, bai eta belar txarrak kentzen ere.

Ekaitz arriskua eta, hortaz, gaitz kriptogamikoak agertzeko arriskua, egongo da zenbait egunez, baina badirudi abuzturako udan berezko diren baldintzak etorriko direla.

Etekiniei dagokienez, ugariak dira mahasti gehienetan, salbu ekain bukaeran harriak gehien kaltetu zituen Leza eta Navaridasko mahastietan eta uztailaren 8ko kazkabarrak Gatzaga Buradonen kaltetu zituenetan. Kalteak jasan zituzten mahastiak indarberritzen ari dira ahal duten neurrian, baina ekoizpena kasu batzuetan txikia izango da.

Gaur gaurkoz, ezin da zehaztu aurtengo uztak zer nolako bilakaera kualitatiboa izango duen; aurten, inoiz baino gehiago, ziurgabetasuna da erabateko ezaugarria. Mahatsondo oso hostotsuak, hezetasun handia lurzoruan, onddoen eraginez gaixotasunak agertzeko arrisku handiagoa eta etekin handiak izateak eragin dezakete heltze prozesua zailtzea, baldin irail eta urriko baldintzak oso egokiak ez badira.

Arabako Txakolinaren eremuan, baldintza orokorrak eta mahastien egoera Arabako Errioxakoen antzekoak dira; atzerapen txikia dakarte —ilar neurriko aleak (K) eta mahats mordoa ixten hasten (L) egoeren artean daude mahatsondoak—, eta etekin txikiagoa ere bai. Euri asko bota du eta, hortaz, batez ere onddoak eta gorrina agertzeko arriskua ere handia izan da. Normalean baino tratamendu trinkoagoa egiten jarraitzen dute, mahastiak osasuntsu eta babestuta izateko.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua